



Gu, Oianguren Institutuko Haur Hezkuntzako goi mailako zikloko ikasle talde bat gara eta ondorengo lerroetan gure enpresa proiektuaren nondik norakoa azalduko dugu:

Gaur egungo gizartean naturarekin daukagun harremana galtzen ari gara pixkanaka. Gure taldeak harreman hori indartzeko beharra identifikatu du.

Horregatik BIZIRIK enpresa sortu dugu, arazo honi irtenbide bat emateko. Eskeiniko dugun zerbitzua, Iratiko basoan zehar txangoak antolatzea izango da, euri zein eguzki eginda ere eguraldia aitzakia ez dadila izan!

